

**OÑATIKO UDALAREN ETA BIDEBARRIETA AUZO-JAI ELKARTEAREN ARTEKO
LANKIDETZA HITZARMENA**

Oñatin, sinadura digitalean agertzen den datan, bi alde hauek **BATU** dira:

Batetik IZARO ELORZA ARREGUI andrea, Oñatiko Udaleko alkatea, Udal korporazioaren izenean (NAN: **3963**G / Helbide Soziala: Oñatiko Foruen Enparantza, 1).

Bestetik, BEÑAT LETURIAGA ZABALETA jauna Bidebarrieta Auzo-jai- Elkartearen izenean aritzeko gaitasuna duena (NAN:**3454**E / Helbide soziala: Bidebarrieta Kalea, 019).

Bi aldeek hitzarmen hau egiteko nahikoa gaitasun aitortu diote elkarri eta honako hau **ADIERAZTEN DUTE** :

I. Herriguneko auzoak bizirik daudela erakusten dute Auzo-jaien Elkarteek, eta azken urteetan, udalarekin lankidetzan, lan oparoa egiten ari dira auzoak dinamizatzen. Izaera eta inguru propioa du Auzo-jaien Elkarte bakoitzak eta, egun, auzotarren topagune bilakatu dira.

II. Oñatiko Udalak eta Auzo Jai Elkarteak elkarrizketak izan dituzte "Auzoko jai programaren antolaketa kudeatu-garatu eta bi aldeen arteko lankidetzak" bermatzeko.

III. Nortasun Juridikoa. Bi aldeek aitortzen dute Bidebarrieta Auzo-jai Elkarte (G13960547) zuzenbide pribatuko elkarte dela, Euskadiko Elkarteei buruzko ekainaren 22ko 7/2007 Legean ezarritakoaren arabera sortua, irabazteko xederik gabekoa. Era berean, aitortzen dute Auzo-jai Elkarteak ez duela inolako mendekotasunik Oñatiko Udaleko aginte organoekin, ezta lan-harremanik ere.

IV. Azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 22. artikulua dio (22.2.a atala) toki erakundeen aurrekontuetan aurreikusitako dirulaguntza zuzenak eta izendunak zuzenean eman ahalko direla, hitzarmenetan eta dirulaguntza horiek arautzen dituen araudian ezarritakoaren arabera.

V. Azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 28. artikulua dio hitzarmena izango dela toki erakundeen aurrekontuetan modu nominatiboan aurreikusitako dirulaguntzak bideratzeko ohiko tresna.

VI. Oñatiko herriguneko Auzo-jai Elkarteek antolatzen dituzten jaiek izaera propioa eta bakarra dute. Hori dela eta, Auzo-jai- Elkarteak sustatzeko eta bultzatzeko dirulaguntzak ezin dira lehiaketa bidez deitu, Auzo jai Elkarte jakin bat baita onuradun posible bakarra.

VII. Oñatiko Udaleko 2026ko aurrekontuetan, dirulaguntza zuzena eta izenduna aurreikusi da Bidebarrieta Auzo-jai Elkartearen alde, herriguneko auzo-jaietan kultur egitasmoak sustatzeko. Hemen araututako dirulaguntza emateko erabakia baliozkoa da, kreditu egokia eta nahikoa esleitu baita 2026ko ekitaldiko aurrekontuan.

VIII. Eskumenak.

Auzo-jai Elkarteak garatuko dituen jarduerak —dirulaguntza honen xede direnak— Oñatiko Udalaren dirulaguntzak emateko eskumen alorraren barne daude.

Dirulaguntzak eman nahi dituzten Udalek onartzen dute beraien Plan Estrategikoa (38/2003 8.1.art. Oinarrizko izaera duena). Bertan, Planarekin lortu nahi diren eraginak eta helburuak zehazten dira.

Oñatiko Udalak, 2022-10-11ko Alkate Dekretuz 2023-2026ko Diru laguntzen Plan Estrategikoa onartzen du. Plan Estrategiko honek, besteak beste, bere 5.artikuluaren 5.4. puntuan 14 jarduera lerro estrategiko jasotzen ditu . Dirulaguntza honi lotzen zaion lerroa 7.terro estrategikoa da: kulturaren dinamizazioa: " Udalerriko jaien antolaketa dinamizatzea, auzo guztienak barne, eta hauetan ekintza herrikoiak antolatzea" . Sinatu nahi den lankidetzaren hitzarmen hau, zazpigarren estrategia honekin lerrokatzen da.

IX. Aurreko guztia kontuan hartuta, lankidetzaren hitzarmen hau izenpetu da klausula hauen arabera:

KLAUSULAK

LEHENA: Hitzarmenaren helburua.

Hitzarmen honen xedea da:

- Oñatiko herriguneko Bidebarrieta Auzo-jai Elkarteak antolatutako jai-programa gauzatzeak dakartzan gastuen finantzaketan laguntzea.
- Auzo-jai Elkartearen dinamika suspertzea, jaietan kultur jarduerak sustatu eta indartzeko, eta auzotarren topagune bilakatzeko.

BIGARRENA: Hitzarmenaren iraupena.

Hitzarmenak urte bateko (2026) iraupena izango du.

HIRUGARRENA: Laguntzaren zenbatekoa eta kontu-saila.

.-Hitzarmen honen lehen klausulan adierazitako helburua gauzatzeko, Oñatiko Udalak hiru mila berrehun eta berrogeita hamabost euro (3.255€) Auzo jai -Elkarteari dirulaguntza zuzen eta izendun gisa.

.-Hitzarmen honen xede den diru laguntzetarako, kreditu egokia eta nahikoa ezarri da 2026 urteko Udal aurrekontuetan. Ordainketa 1.0800.481.338.07.01.5766.2026 partidaren eta haren lotespen-mailaren barruko kredituen kontura egingo da.

LAUGARRENA: Likidazioa eta epea.

Dirulaguntza zuzitzeko irizpide hauek kontuan hartuko dira:

Memoria ekonomikoan, gutxienez, jarraian zerrendatzen diren agiriak aurkeztu beharko dira.

Memoria ekonomiko hau gastu-sarreraren laburpen taulan jaso beharko da. Horretarako, Oñatiko web orrian eskuratu ahal izango den, gastu-sarreraren balantze orokorreko eranskina aurkeztu beharko da.(www.oñati.eus).

Zuriketa aurkezteko epe muga: 2026ko azaroak 13, ostirala.

Gastuak

Diruz lagundutako jardueraren izaerari zuzenean lotutako gastuak aurkeztu beharko dira, jarduerak egiteko aurreikusitako epea amaitu baino lehen sortutakoak. (Azaroaren 17ko 38/2003 Legea).

1. Gauzaturiko jai programazioa: egindako jarduerak jasotzen dituen eta bakoitzarengandik ordaindutako prezioa adierazita.
2. Gastuen barruan ere sartu ahalko da:
 - Instalatu diren azpiegiturak, Auzo-jai Elkarteak ordainduriko prezioak (eszenatokiak, eszenatokien estalkiak, karpak, argi-soinu ekipamenduak,...).
 - Publizitate gastuak. Atal honetan sartzen dira jaien programa, kartelak eta beste batzuk argitaratzeagatik ordainduriko prezioak.
 - Istripu eta erantzun zibileko aseguru gastuak.

Likidazioaren gastuak zuritzeko onarturiko zurigarriak, baldintza hauek bete beharko dituzte:

Fakturak.

Informazio fiskala osoa jaso behar dute; hau da, ematen eta jasotzen duenaren identifikazioa (izen deiturak, NA edo NFK, helbidea), faktura zenbakia, data eta BEZ.

Faktura sinplifikatuak.

Salbuespen modura, enpresa-buruak edo profesionalak ez diren pertsona fisikoek noiz edo noiz egindako jardueretan, adostutako ordainsariaren zenbatekoa erakusten duen hartze-agiria aurkeztea onartu ahal izango da, jasotzailearen identifikazio-agiriaren kopiarekin batera Ordainsaria 400€-koa baino gehiagokoa denean, derrigorrezkoa izango da jasotzailearen banketxe-kontuan ordainketa egin izanaren ziurtagiria aurkeztea.

Bazkari/afari gastuak:

Ez dira onartuko diruz laguntzeko gastu moduan: bazkari, afari edo ostalaritza zerbitzukoak diren beste batzuen kostuak, diruz lagundutako ekintzan parte hartzen dutenekin sortutakoak izan ezik; eta hala denean, egindako gastuaren eta lortu nahi den helburuaren arteko proportzionaltasuna gorde beharko da. Hala ere, salbuespen izaeraz, Udalak, dagokion akordioaren bidez espreski onartu ahal izango du aipatu gastu kontzeptuak. (Oñatiko Udalak emandako dirulaguntzak kudeatzeko Ordenantza Orokorra- GAO, 20009ko otsailaren 10ean, 19.2 art).

Zuriketa bezala onartuko diren dokumentuak: fakturak, faktura sinplifikatua, auto faktura eta/edo jaso izanaren agiriak.

Diru-sarrerak:

1. Lorturiko diru-sarrerak, zein kontzeptuen bidez lortu diren adieraziko da (publizitatea, herri-bazkaria, salmentak, dirulaguntzak,..) bereizita.

Horrez gain, Udalak Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorrak 38/2033 legeak 30. eta 31. artikuluetan araututakoaren arabera, beharrezkoak diren dokumentuak eskatzeko aukera izango du.

BOSGARRENA: Ordainketa.

Dirulaguntza bi zatitan ordainduko da:

- Dirulaguntza-eskaera onartutakoan, %70. (2.278€).
- Egitarauko ekintzen memoria ekonomikoa edo/eta likidazioa aurkeztu, bete dela egiaztatu eta onartutakoan, %30 (977€).

SEIGARRENA: Onuradunaren betebeharrak.

Antolatzaileak, hitzarmen honetako gainerako puntuetan adierazi eta onartutakoez gain, konpromiso hauek hartzen ditu Oñatiko Udalarekin:

6.1. Jasotako zenbatekoen erabateko itzulera edo itzulera partziala burutu beharko da hitzarmen honetan aurreikusitako baldintzak edo organo eskudunak ezarritako justifikazio betekizunak betetzen ez badira; baita ere diru laguntzen Lege Orokorraren 37.artikuluari aurreikusitako kasuetan ere.

6.2. Onuraduna diru kontuen ikuskaritza edo auditoretza egitera behartuta balego edo/eta Udalak edo Administrazio batek hala eskatuko balio, derrigorrez jarri beharko ditu ikuskaritzaren esku (Azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 14.1c) eta f) artikulua).

6.3. Auzo-jai Elkarteak erantzukizun osoa izango du auzoko jaien antolaketan eta horien garapenean gerta daitezkeen ezbehar, istripu eta bestelako gertakizunen aurrean, bai Udalarekiko eta baita hirugarren pertsonetik ere, pertsona fisiko zein juridikoa izan, izaera publikoa zein pribatua izan. Auzoko jai elkarteak auzoko jaiari dagokion erantzun zibileko aseguruia kontratatu beharko du (kapital minimoa 150.000 eurokoa izango da), eta aseguru hori kontratatu duela egiaztatu. (44/2014 Dekretua, martxoaren 25ekoa).

6.4. Auzo-jai Elkarteak antolatzen dituen jarduera guztietan istripuen prebentzioaren arloan indarrean dagoen legedia beteko du (4/1995 Legea, azaroaren 10ekoa, ikuskizun publikoak eta jolas-jarduerak arautzekoa).

6.5. Diruz lagunduko diren jarduera guztiak gauzatzeko beharrezko baimenak eskatu beharko ditu eta haietan agindutakoa bete beharko du.

6.6. Auzo-jai Elkarteak emakumeen eta gizonen presentzia orekatua sustatuko du bere osieran, bai jaien inguruan antolatzen diren ekintzetan, bai jai-programa osatzeko egiten diren kontratuetan. Jaietako jarduerak auzoko emakume eta gizonen interes eta beharretara egokitzea bilatuko da. Jai Elkarteak neurriak ezarriko ditu erabaki guneetan emakumeen edo gutxiegi ordezkaturako kolektiboen parte hartzea bermatzeko.

6.6.1. Jai programa genero ikuspegitik aztertzen laguntzeko, Udalak formulario bat osatuko du. Auzo jai-Elkarteak formularioa bete eta aurkeztu beharko du. Udalak formulario aztertu, erronkak identifikatu eta partekatuko ditu, Auzo-jai Elkarteak garatzen duen jai-programazioan aplikatu ahal izateko.

6.6.2. Auzo jaietan genero, jatorri, sexu-orientazio, kultura edo bestelako arrazoiengatik erasorik gertatuko balitz eta auzo jai Elkarteak erasoaren berri izango balu, Udalari jakinaraziko dio

6.7. Euskararen Erabilera Normalizatzeko Udal Arautegiak dioena kontuan hartuta, antolatzaileak konpromiso hauek hartzen ditu bere gain hitzarmen honen baitan: Jai

egitarauko jarduera guztietan, euskara erabiliko da ahoz nahiz idatziz. Auzoko Jai Elkartearen kanpoko zein barneko komunikazioetan euskara erabiltzea ziurtatuko da. Euskararekin batera gaztelania ere erabiltzen den kasuetan, euskarari emango zaio lehentasuna.

6.8. Dirulaguntza ezingo da ordaindu onuradunak zerga ordainkizunetan (Foru Ogasuna eta Udal biltegia) eta Gizarte Segurantzaren aurrean egunean dagoela egiaztatu arte. Onuradunak egiaztatzeke- ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu , Udalari hori egiaztatzeke baimena ukatu baldin bazaio edo NISAE nodoaren bidez - elkarreragingarritasun zerbitzuen katalogoan kontsulta ezin bada egin.

NISAE nodoaren - administrazioen segurtasunerako eta elkarreragintasunerako nodoa- bidez , Oñatiko Udalak beharrezkoak diren egiaztapenak eta kontsultak egingo ditu dirulaguntzaren tramitazio administratiboa egin ahal izateko interesdunek administrazioaren esku jarritako datuei buruz. Horretaz gain, euren jarduerak Kulturaren eskumenen arloan egiten dituzten irabazi asmorik gabeko erakunde eta elkarteentzako dirulaguntzaren tramitazio administratiboa egiteko beharrezkoak diren egiaztapen guztiak ere egingo ditu. Horregatik, elkarreragingarriak izan daitezkeen datuak eskatzeari utziko zaio, baldin eta interesduna datu horiek erabiltzearen aurka agertzen bada ; kasu horretan, dagozkion datuak edo dokumentuak aurkeztu beharko ditu (Urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28. artikulua).

Aipaturiko egiaztagiriak balioudunak izango dira ematen diren egunetik eta hurrengo sei hilabeteetarako. Dirulaguntza jasotzen duen kontzeptu bakoitza benetan ordaintzen den unean egiaztageria eman zen egunetik sei hilabete igarota egonez gero, organo emaileak zuenean eskuratuko du ziurtagiri berria edo baimena eman ez duen entitate/onuradunak berriro aurkeztu beharko du egunean dagoenaren egiaztageria.

6.9 Jasotako funtsak itzuli aplikagarri den legedian aurreikusitako kasuetan

7. Hitzarmen hau egiteko arrazoia den jokabideari eustea.

ZAZPIGARRENA: Udalaren eskumena.

Udalari dagozkio honako eskumenak:

Hitzarmena interpretatzea, hura betetzean sor daitezkeen zalantza kasuetan erabakitzea, interes publikoak eskatuta aldatzea, bertan behera uzteko akordioa hartzea eta horren ondorioz zehaztea, legez (Apirilaren 18ko, 781/1986 Erret. Dekretu legegilearen 114.artikulua) ezarritako mugen baitan eta beti ere han jasotako baldintza eta ondorioei lotuta. Hartutako

erabakiek administrazio bideari amaiera emango diote eta bat-batean bihurtuko dira betearazle.

ZORTZIGARRENA: Hitzarmenaren haustea.

Auzo-jai Elkarteak hitzarmenean jasotako baldintzak betetzen ez baditu, Udalak hitzarmena bertan behera utz dezake, eta Auzo-jai Elkarteak dirulaguntza itzuli beharko du.

Hitzarmenak izaera juridiko-administratiboa duenez, hitzarmen hau aplikatzearen ondorioz sor daitezkeen auziak administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren mende jarriko dira.

BEDERATZIGARRENA: Araubide juridikoa eta jurisdikzioa.

Hau izango da egitasmoetan bete beharreko legeria aplikagarria:

- a) 10/2015 Legea, abenduaren 23koa, jendeaurreko Ikuskizunen eta Jolas jarduerak Arautzen dituen.
- b) 44/2014 Dekretua, jolas-jarduerak eta ikuskizun publikoak burutzeko eska daitezkeen erantzunkizun zibileko aseguruie buruzkoa.
- c) 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena
- d) 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena.
- e) 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Diru Laguntzen Lege Orokorra.
- f) 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, diru laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren Erregelamendua onartzen duena.
- g) Oñatiko Udaleko Dirulaguntzen Ordenantza Orokorra (OB: 2009-01-29)
- h) Oñatiko Udaleko Dirulaguntzen Plan Estrategikoa (2022-10-11ko Dekretua)

Administrazioarekiko auzien jurisdikzioa izango da alderdien artean ager litezkeen interpretazio, arazo eta egikaritze gaiak ebazteko eskuduna.

Hitzarmenaren klausulak banan-banan irakurri ondoren, bi aldeek erabateko adostasuna adierazten dute eta agiri hau oso-osorik onartu. Eta hala jasota gera dadin, eta behar diren ondorioak izan ditzan, hitzarmen hau sinatzen dute.

Oñatin, sinadura digitalean agertzen den datan,

**Oñatiko Udalaren izenean,
Izaro Elorza Arregi, Alkatea.**

**Bidebarrieta Auzo-jai Elkartearen izenean,
Beñat Leturiaga Zabaleta**



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

Bidebarrietako hitzarmena 2026

CSV/EKS:

SINA867ce6d7-2295-463d-b597-b9c95448b4cc